

## Euskara ikastaroak

# «Ni Moussa naiz. Senegalekoa naiz»

Topaguneak euskara ez dakitenei hizkuntza hurbiltzeko Auzoko egitasmoa dauka abian. Urnietako (Gipuzkoa) Banaiz Bagara elkarteak ere, antzeko ikastaroak eskaintzen ditu etorkinentzat. Ez dira ohiko euskara ikastaroak, irakas metodo berriak saiatzen ari dira.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Dani Blanco



GIPUZKOAKO ORIO HERRIAN gaude. Arantxa Arrillagarekin ari gara berriketan, Topaguneak eta UEMAK abiatutako Auzoko egitasmoa ari zaigu azaltzen. Halako batean bi mutil koxkor sartu dira ikasgelan. “Kaixo Rafkat! Zer moduz? Zure anaia Suleiman ere etorri da?”, “Kaixo, bai, anaia etorri da”. Astean bitan egiten dituzten euskara saiota-rra Pakistango 8 eta 10 urteko haurren anaia zaharragoa joan ohi da. Gaur ez da etorri, baina Rafkat eta

Suleiman bai. Askotan etortzen dira jolasera... eta gero erakutsiko diguten bezala, ikastera ere bai.

Arrillaga Orioko Auzoko egitasmoaren dinamizatzailea eta biok isildu egin gara, auzokideak eta auzotarrak badatozelako: Ousmane, Richard, Ahmed, Omar, Moussa eta Sama senegaldarrak; Ahmed eta Sidi sahararrak; Bryan nikaraguarra; Claudia Honduraskoa; eta Ane Miren eta Ane oriotarrak. Borobileen jarri gaitu Arrillagak eta

baloia elkarri pasaz nor bere burua aurkeztu du: “Ni Omar naiz, ni Senegalekoa naiz, ni Orion bizi naiz”. Gehienek kostata egin dute aurkezpena. Laguntzeko daude Arantxa Arrillaga, eta Ane eta Ane Miren auzotarrak. Izan ere, Auzoko programak biak biltzen ditu ikastaroetan, euskaraz ez dakien edonor (auzokidea) eta euskaraz dakiena (auzotarra).

Baloia utzi eta binaka elkar topo egin dugu, berriz ere gure burua

Babeslea: Bermeoko Udala

**MAIATZAK**  
**13**  
13:30 ean

Geurien be bai

---

**Enpresa, merkataritza eta elkarteetako lana aitortzeko ekitaldia**

**KALINPAN**

BERMEOKO  
UDALA  
Euskera  
Saila

Geurien be bai



Ondoko orrialdeko ezkerretik eskuinera: Richard, Ane Miren eta Ane. Atzean Omar eta erlojua buru gainean hartuta Rafkat. Orri honetan, ezkerrean, zutik erdian Arantxa Arrillaga dinamizatzailea, ezkerrean Bryan eta eskuinean Claudia dituela. Eskuineko argazkian, mahai gainean eserita Sidi. Ikasgelan ez da harkatzik eta paperik erabiltzen, jolasen bitartez doaz pixkanaka euskara ikasten.



aurkezteko. Ousmane dugu parean, 29 urteko senegaldarra. Bere burua aurkezteko baino zertxobait gehiago moldatzen da euskaraz eta kazetariak zukua atera dio. Jatetxe bateko sukaldaria da. Nagusiarekin gaztelaniaz egiten du, broma giroan baino ez dio egiten euskaraz. Wolof da bere ama hizkuntza, frantses pixka bat daki eta gaztelania ere ikasi du.

### Ariketa dibertigarriak

Inork ez du boligrafoa eskuan hartu, ez dago arbelik. Idatzizko erreferentzia bakarrak hormetan daude, pareta batean familia deskribatzeko hitzak, bestean norberaren aurkezpena egiteko hitz gakoak, hurrengoan asteke egunak. Auzokideek ikasketa maila oso desberdinak dituzte, gerta daiteke unibertitate mailako ikasketak dituen eta ia idazten ez dakiena elkarrekin egotea. Arrillagak dioenez, “abiadura motelean joan behar da eta saioek dinamikoak izan behar dute. Kosta egiten zaie hizkuntza berria barneratzea eta gauzak asko errepikatzen ditugu”. Aurkezpena sarri egiten dute, eta hala segiko dute, ikasitakoa barneratu arte.

Hurrengo ariketa oso dibertigarria izan da. Bat edo bi boluntario gelatik atera dira eta geratu direnak “ondo kokatu” dira: bata berogailuaren aurrean, bestea leihoaren ondoan eta bestea atearen ezkerrean. Rafkat mutiko pakistandarra eta Sidi sahararra saiatu dira ikaskideei lana zail-

tzen, erloju galanta buru gainean lehendabizi, gero aurpegia ezkutatzen... “Sidi erlojuaren atzean... ez aurrean... ez”, denak barrez ari dira.

### Esperientziari neurria hartzen

Auzoko egitasmoa hainbat herritan ari dira garatzen. Orion zortzi bat hilabete daramatza. Helburua da euskaraz ez dakitenei (ez du zertan atzerrikoa izan) euskarara hurbiltze-

### Ousmane jatetxe bateko sukaldaria da.

### Nagusiarekin gaztelaniaz egiten du, broma giroan baino ez dio egiten euskaraz

ko modua egitea eta haien kultura eta hizkuntzei atak zabaltzea. Arantxa Arrillagari Udaleko euskara teknikari Jabier Zabaletak deitu zion egitasmoa bideratzeko proposatuz. Segituan esan zuen baietz. Ordurako Aisa taldeko –etorkinentzako euskara eskolako– irakasle izana zen eta bazuen harra sartuta: “60 ordu, lau liburu... beste moduren baten beharra ikusten nuen”. Auzokoren planteamendu teorikoa asko gustatu zitzaion. Erronka egitasmoa esperientzia bihurtzea izango zen: “Nola egin? Hori ez zidan inork esan. Asmatu egin behar da, sortu”. Arrillagak erabilitako hitzari helduz, “salto” egin behar zen, eta duela zor-

tzi bat hilabete hala hasi ziren, indartsu. Orion 370 atzerritar daude. Ahalik eta jende gehien ikastaroetara biltzea zen hasierako asmoa. 20 bat lagun hasi ziren eta gerora ikusi du Arrillagak nahikoa lan badela halako taldea kudeatzea. Hasi berritan, asteke bi euskara saioez gain, bestelako ekimenak egiten zituzten, hala nola, afariak eta kantaldiak. Orain, astelehen eta ostegunetan hamar lagun inguru biltzen dira, batzuek ez dute hutsik egiten, eta beste batzuk joan-etorrian dabilta. Hasierako aparra baretu da eta orain lasaiago kudeatzen du taldea Arrillagak.

Ikasgelan eguneroko goerak birsortzen saiatzen dira, agurrak eta telefono deiak, adibidez. Alabaina, barneratutako euskara apurra kalean erabiltzen al dute? “Harremana auzotarrekin daukate, saioetara datozen euskaldunekin, kalean oso-oso zaila da bertakoekin harremana izatea. Beno, oso-oso zaila baino, denbora behar da”.

Euskararen beharrik ez dute, gaztelania halaberrez ikasi dute. Jakin-minak jota edo euskaldunen komunitatea ezagutu nahian hurbildu dira saioetara.

Bideo kameraren aurrean jartzeko gonbitea egin eta ia denek baieztatu dute. “Ni Moussa naiz, neska euskalduna nahi dut”. ■

**argia.com** Berandueguren 16. telebista programan auzokideak eta auzotarrak euskara saioan nola aritzen diren ikusi ahal izango duzue.

# Euskara irakasteko bide berriak urratzen

Petra Elser da Banaiz Bagara elkartearen koordinatzailea. Badaki zer den euskara helduaroan ikastea. Berriei ikasketa prozesua nola erraztu asmatu nahian dabil.

URNIETAN, Hernanin, Villabonan, Andoainen eta berriki Lasarte-Orian sortu ditu taldeak Banaiz Bagara elkarteak. Astigarragan ijitu errumaniarrek osatutako taldea egon zen, baina orain geldirik dago. Herrian herriko udalekin batera kudeatzen ditu ikastaroak eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere badu. Elserrek berak ematen ditu eskolak, batzuetan AEK-ko irakasleen laguntzarekin, eta baita, Arantxa Arrillagarekin berarekin ere.

Auzoko egitasmoak ez bezala, deialdia etorkinentzat egin zuen arren, erdaldunak ere badoaz eskoletara. Harritu egin du horrek Elser: “*Euskara para inmigrantes* jartzen duzu eta Cáceres eta Burgoosekoak etortzen dira. Oso pozgarria da, baina beraien burua etorkinentzat definitzeak zerbait esan nahi du”. Puzlea osatzeko euskaldunak nahi izaten ditu Elserrek taldeetan. Oraingoz, euskara ikasten ari diren edo ikasi berri duten bertakoak doaz, euskaldun zaharrak ez. Espainiako Estatuko ikasleez gain, ohikoena senegaldarrak, pakistandarrek eta hegoamerikarrak dira.

Saiakerak nola aterako diren ez daki Elserrek, baina helburuak garbi dauzka: edozein etorkin komunitaterengana jo eta komunikazio hizkuntza euskara izango dela garbi utzi; erabileran oinarria izango duen irakas metodo errazaz baliatu; jendea motibatzen duen eremua kontuan hartu; eta euskarari buruz taburik gabe hitz egin, batez ere erdal komunitatearekin. Azken horri lotuta, Alemanian jaio den Elserrek azpimarratu du, lubatik atera eta besterik galdetu behar diogula ea nola ikusten gaituen.

Euskaltegiak izanda, bestelako bideak jorratzera zerk eraman duen



Argazkian Aiuuri aldizkariak emandako saria jasotzen. Ezkerretik eskuinera: Adama (Senegal/Beasain), Adelaida (Ekuador/Hernani), Umar (Pakistan/Hernani), Julian (Errumania/Urnieta), Edorta Matauko, Josu Arrieta, eta Petra Elser Banaiz Bagarako kideak, Antxoni (Extremadura/Andoain) eta Vila (Galizia/Urnieta).

galdetu diogu: “Etorkinek badakite euskaltegietan euskara ikas daitekeela, baina ez dute uste hori beraienez denik, bizi daitezke euskara erabili gabe, gaztelania ulertzen dute”. Bai Auzoko egitasmoa eta bai Banaiz Bagara elkarte etorkinaren bila ibiltzen dira, ez daude nor etorriko. Hala ere, saiakera berri hauek bestelako bi ezaugarri behintzat badituzte: doan dira eta joan-etorria libre da, eta irakas metodoa ez da zurruna, alegia, helburu nagusia ez da gramatika egokia eta euskara perfektua ikastea, baizik eta eguneroko egorak esaldi xumeetan erreproduzitzen saiatzea. Elserrek ikasle bati baino gehiagori entzun dio esaten, ez zutela uste gai izango zirenik euskara irakasteko, oso arraroa, ulergaitza, urrunekoa egiten zitzaielako.

Euskara urrunekoa. Hori da egitasmoaren sortzailearentzat beste helburu inportantea. Euskara ez da etorkinentzat: “Jendeak gaztelaniaz

egiten die eta haienez euskara euskaldunen arteko hizkuntza da. Berari egiten ez diotenez oso urrunekoa da”. Gaztelaniaz ikasi dute: “Kalean harrapatu dutena ikasi dute. Lanean, dendetan... euskaraz egingo bagenie euskara ikasiko lukete. Horrek ez du esan nahi ‘guk euskaraz eta zuk ez baduzu ulertzen hor konpon’. Erakargarri eta modu irekian egin behar diegu: hitz eta egitura errazak erabiliz, poliki hitz egingez... eta gaztelaniaren laguntza behar bada, erabili”. Elserrek garbi du integratzearen komunikazio hizkuntza euskarak behar duela izan eta horretarako euskaldunok horren kontzientzia izan behar dugula.

Baikorra da Elser. Senegaldarrekin, pakistandarrekin, hegoamerikarrekin aurrez aurre egoten da eta ez du euskararen kontrako jarrerarik ikusten, aldiz euskararen beharrik gabe sumatu ditu. Premia sortu behar. ■